Udaberriko ohituren sustraiak*

JOSE MARIA SATRUSTEGI

Izenburuko hiru hitzetan laburbiltzen da saio honen aztergaia: *Udaberriko ohituren sustraiak.* Hitz horietako bakoitzaren edukian sakontzea izango da lanaren helburua, horrela, euskal hiztegian arruntak eta gardenak diren hitzen bidez, hain ezaguna ez den jatorriko mezua azaltzen ahalegindu gaitezke.

Udaberria, adibidez, gure kulturatik oso desberdina den kontestu batean kokatzen zen eta orduko giroan zuten ohitura zaharrek berezko esanahia. Zaila gertatuko litzateke gizarte industrializatuak hori ulertzea ez bada aurretik antzinako gizonak zuen pentsakeraz hitz egiten, ohitura zaharrak gero iturrietan txertatuz.

1. UDABERRIA

Aspaldi bateko gure arbasoak ez zuten urtea gaur egungo hamabi hilabeteen zaku estuan sartzen. Bi ziren haientzat urtaro edo sasoi nagusiak: uda eta negua. Uda zen biziko argitasunaren aro itxaropentsua, eta neguak heriotzaren iluntasuna gogoratzen du. Sinbologiako pentsakera irudietan oinarritzen denbora, eta gizona bera da lehen erreferentzia zehatza. Natura, beraz, jaio, hazi eta hil egiten dela uste zuten, pertsonaren antzera, eta hori da aroen aldakortasunaren ardatza.

Uda eta negua, bizia eta heriotza, aintzat hartzen ditu kultura zaharreko gizonak, baina ez neurri berean. Lurra ernatzen hasten den garaira aurreratzen du udak bere izena eta *udaberria* esaten zaio, eta azken frutuekin batera hostoa erori arte luzatzen du gero protagonismoa, *udazkena* deituz. Gainerakoa da negua.

* Iruñeko Udalak eta Nafar Ateneoak antolatuta, Erraldoien Txokoan emandako hitzaldia. Iruñea, 2002-04-17.

Denboraldiak ez ziren egun jakinetan hasten edo bukatzen. Nekazarien lanbidean negu sarrera aurreratu zitekeen edo atzeratu, luzatu edo moztu, beti eguraldiaren arabera. Lanak markatzen zuen sasoi nagusien eginkizuna: negu aurreko ereintzarekin lotzen da *azaroa,* laboreak biltzeko sasoi zabala da *uzta* edo *uztaroa,* eta *larrazkena* mendiko azienda etxeratzeko unea.

Gaur ez bezalako garrantzia zuen orduan udaberriak. Gertakizun misteriotsua zen lehen gizonarendako naturaren pizkundea. Hildakoen lozorro antzuan murgildurik egondako Ama-lur handiaren esnatzeak, emankortasunaren itxaropenez alaitasuna zekarkion gizonari, eta negu iluneko egun motzak atzean utzita argi distiratsuko egun luzeetan sartzeak eguzkiaren heldutasuna eta biziaren garaipena gogoratzen zizkion.

Hori dela eta udaberriarekin loturik zegoen urte hasiera, gero negura aldatu dena, eta festa giro alaian ospatzen zen gertakizuna. Ilargiari begira ikasi zuen gizonak denbora neurtzen, eta ilargiaren egutegiko hizkuntzan mintzatu zen bere ibilaldi luzeenean gizadia. Epe motzean antzaldatzen den ilargia neurgailu aproposagoa gertatu zitzaion, eguzkiaren urte guztiko bide luzea baino. Haren adarren norabide aldakor eta ia desagertzetik musu zabala erakustera doan ibilaldiko itxuraldiak izan ziren lehen erlojuaren orratzak munduan.

Eliza da gure artean ilargiaren egutegi zaharrari jarraitzen dion erakunde bakarretakoa. Kristoren piztuera juduen Pazko egunean gertatu zen eta lehen hilabeteko ilargi betean ospatu ohi zen. Horren arabera aldatzen dira urtetik urtera garizuma eta urteko festa mugikorrak kristau liturgiako egutegian.

Udaberrian hasten zen, beraz, urtea eta bere ildotik ohitura nagusiak.

2. OHITURAK

Izenburuan *ohiturak* aipatzen dira hurrena. Ugaria eta aberatsa da udaberriko ohituren emaitza. Zenbait multzotan sailkatu ditzakegu aipagarrienak: a) Zuhaitz eta landareak. b) Santutegietako bira edo prozesioak. c) Ur bedeinkatu eta konjuroak. d) Panpina eta altzari erretzea, eta e) Su berriaren erritoa.

a) Zuhaitz eta landareak. Izadia ernatzearen ezaugarri gardena direnez, berezko lehentasuna zuten udaberriko ohituretan zuhaitz eta landareek. *Maiatza* edo *maiatz arbola* jartzea zen, eta jartzen da zenbait herritan. Plazan jasotzen zen eta, batzuetan, udalak berak parte hartzen zuen gastuetan edo mutilei ardoa ematen, udaletako kontuen liburuetan agertzen den moduan. Orreagako eliz-liburuetan ere bada maiatza jartzaileei ordaindutako gasturik. Gure gazte denboran txara luze eta liraina ekartzen zen nire herrian menditik eta azalik gabe zutitzen zuten hostudun eranskina muturrean lotuta.

Sakana mendebaldeko herri betzuetan bizirik dirau egundaino ohitura honek eta herrian ez ezik Urbasa mendiko Barga gainean ere paratzen dute. Arruazun san Pedro bezperan jartzen zen herriko festekin batera, Bakaikun santiagotara aldatua duten bezala.

Landareei dagokienez, Erramu egunean bedeinkatzen ziren urte guztian leihoan egoten ziren adaxkak. Lizar eta elorri ezpalekin agindako gurutze txikiak baserri eta bordako atalburuetan josten ziren tximisten aurka eta era guztietako gaitzen kontrako babesle.

Urdiaingo sorgin belarrek aipamen berezia merezi dute. Larunbat Santuko ezkilak jotzen hasten zirenean belar sorta bat hartzera ateratzen ziren emakume guztiak kanpora eta ohe lastairaren azpian sartzen zituzten sorgin-erasorik ez izateko. Jakinik emakume asko nekez mugitzen zela, behar hainbat luzatzen zuela ezkilak jotzea aitortzen zuen sakristauak.

b) Prozesio egunak. Udaberriko txango bereziak prozesioak ziren nekazaritza munduan. Herri guztia mugitzen zen, goizean goiz, lanera joan aurretik ermitako itzulian parte hartzeko. Santuen letaniak abesten ziren bidean, gero apaizak lurren bedeinkazioa egin eta meza entzun ondoren itzultzeko herriko elizara. Eguraldi ona eta frutuen emankortasuna eskatzea zen helburua.

Hiru ziren elizkizun hauek ofizialki egiteko egunak: San Markos apirilaren 25ean, Kurutze santuaren eguna maiatzaren 3an, eta Jesus zerura igo zen aszentsio aurreko hiru egun hurrena.

Herri bakoitzeko bira etxekoiez bestalde, baziren santutegi nagusietako ibilaldi luzeak, herri batzuek bakarka eta gehienek ibarrekoekin bilduta egiten zirenak. Orreaga, Uxue eta Aralar izan dira Nafarroan prozesioetako santutegi aipatuenak. San Migel Aralarkoaren letari egunak indarra galtzen joan badira ere, beste biak bere horretan diraute. Larraun eta Sakanako herriak elurrarekin igo izan ziren, bahin baino gehiagotan, bazituzten euren aterpeak eliza inguruko etxean. Lakuntzetxe, Arruazuko sukalde edota uhartearrenak, izena ez dute galdu eta bertan egiten zen sua jendea eta janak berotzeko.

Orreagan indartsu diraute, zerrenda ilunean egurrezko gurutze handiak bizkarrean hartuta, Pirinio ibarretako beila edo prozesioak. Penitentzialdi giroko ikuskari serioa eskaintzen dute bidean. Luzaide eta Iparraldeko jendeek euskararen lekukotasuna ematen dute kantu ederrekin gurutze astunik ezean.

Uxueko ibilaldiei alaitasuna, kolore bizien argia eta festagiro erakargarria darie egunean zehar, otoitz eta elizako kantuen artetik. Azpimarratzekoa da lore eta hosto berdez apaindurik ikusten diren zenbait parrokietako gurutzeak, herrien kultura zaharreko ohiturak kristau tradizio jatorrarekin uztatartuz.

Santuen letanietan eta Ama Birjinaren laguntzan hil edo biziko sinestea zuen, bere lan eta neke guztien emaitza lurraren eta eguraldien baitan ikusten zuen nekazariak.

c) Ur bedeinkatu eta konjuroak. Elizaren zortzigarren sakramentua zen herri xehearen debozioetan ur bedeinkatua, eta erabiliena. Igandero banatzen zen etxeetara. Sukalde aurrean eta logelan ez zen inoiz faltatzen ur bedeinkatu ontzia.

Pazko eguneko ura zen, halere, Larunbat santuko ospakizunen ondoren urteko uretan santuena. Meza nagusi ondoren edota arratsaldean, etxeko jaunak, etxekoandreak edota biek batera, euren lurrak bedeinkatzen zituzten elorri adartxoarekin zipriztinduz. Alor edo larre bakoitzean ohiko otoitzak egin eta bertan uzten zen elorri muturra.

Ur bedeinkatua eta otoitzen saioa ez zen norberaren bakarkako lana bakarrik, gizarte guztiarena baizik, eta elizgizonak kezka orokorrei erantzun zabala ematen ahalegintzen ziren. Maiatzaren hiruan zurezko gurutzea jartzen zen herri askotako elizen kanpoko horman irailaren hamalau arte han

egoteko. Denbora horretan beharturik zegoen herriko apaiza, meza aurrean, egunero konjurua egitera. Eliza atarian lau haizeetara begira ebangelioak irakurri eta otoitza egin ondoren, ur bedeinkatuz zirtatzen zituen bazterrak. Bitartean, sakristauak edo meza laguntzaileak gelditu gabe jotzen zituen ezkilarekin bana eta biko danba tartekatuak.

Ameskoa aldean apaiza ateratzen zen dermioko mugan ezpalezko gurutzeak paratzera. Urdiainen agintariek inguratzen zituzten Urbasa aldean herriko mugak. Baziren 'kurutzetako harriak' eta bezperan sakristauak egindako gurutzetxoa uzten zuten bakoitzaren gainean. Herriko apaiza Udaleko gizonekin joaten zen egun guztirako mendira. Ahozko tradizioak dioenez, bazen 'Hartzaan baratzan' koba edo harzulo sakon bat eta hara iristean, otoitzak egin eta gurutzea ipini aurretik harritxoak botatzen omen zituzten Luzifer barruan zegoen jakiteko. Apaizaren boneta bota omen zuten behin eta gora itzuli. Horrek esan nahi zuen han zegoela preso eta ez zuela uda guztian kanpoan kalterik egingo.

Iruñeko katedralak aurrean zuen burdin hesian bi kutxatila paratzen omen ziren bata egurrezkoa eta zilarrezkoa bestea, maiatzeko Gurutzearen egunean, hodei eta ekaitzak baztertzeko. Nonbaiteko monje batzuk oparitu omen zizkioten kutxatila horiek 1299an Iruñeko apezpikuari. Erromaniko garaiko tradizioa zatekeen esamesen arabera.

d) Panpina eta altzari zaharren erretzea. Udaberriko ohituren artean desagertzera doaz suarekin lotura duten ekintzak. Nire gaztaroan etxez etxe joaten ginen mutiko kozkorrak Aste Santuan, bazterturik zeuden oinetako zahar, ardo zahagi ustel, lurrezko eltze arraildu eta altzari zaharrak biltzen. Erretzekoak erre eta besteak amildegitik botatzen ziren Arnatzen. Bazen beti mutikoetan ausarten bat eltzeen atzetik irristan jaisten zenik, oinak bat bestearen atzetik zuzen jarrita, urek utzitako errekatxo medarretik behera. Erdi osorik gelditutako puskak apurtzea zen helburu bakarra.

Orain bertan badira pazko aldian Judas izeneko panpina lastozkoak erretzen dituzten herriak. Antzinateko ohitura kristautuaren aztarna zaharrak dira, gero esango den bezala.

Larunbat Santuko su berria, gaur egun, pazko elizkizunari hasiera emateko pizten den suarekin zuzenean lotzen da, eta jendeak sua etxera eramateari arreta gehiago egiten dio, batzuetan, gau santuko mezu salbagarriari baino. Aspaldiko ospakizun zaharretan oinarritzen da elizako su berriaren errito esanguratsua.

3. SUSTRAIAK

Aurrekoak esanda tradizioen oinarriak ulertzeko moduan egon gaitezke. Urteberria baldin bazen urtearen hasiera, bertan txertatu behar dira hain festa garrantzitsuaren inguruko sineste eta ospakizunak. Sinbologiako pentsabidearen portaera irudietan oinarritzen zen eta ikusten zuenaren arabera neurtzen zituen ikusezinak. Dendora asmatu eta egutegia atera zitzaion. Aldakorrak zirenez denboraldiak biziduntzat hartu zuen mundua eta, giza esperientziaz baliaturik, jaio, hazi eta hil behar zuen pertsonaia zen urte bakoitza. Hori dela eta, atzean gelditutako aitona da urte zaharra, eta haurtxoa urte jaio berria.

Kontzeptu hau fisikoki ulertzen zuten noski, errealitate gordina bezala, eta gizonak parte hartzen zuen jaiotza berriaren egun handiko festan. Urte zaharrarekiko loturak desegin behar ziren eta jantzi nahiz tresna baztertuak erretzeak, pertsonak barnean zeramatzan aurreko lotura txar guztiak kentzea esan nahi zuen, garbizalea baita sua.

Urtea bera ez da ikusten, zer abstraktua baita, eta bota nahi duenez aitona zaharra ez diezaion urte berria den haur txikiari trabarik egin, giza itxuran jazten du lastozko panpina eta urte zaharra da erretzen dena. Etena adierazten du atzean geldituarekin.

Baina ikusezina baldin bazen urte zaharra, ez da hobeki ikusten urte berria, abstraktua bera ere. Natura berpiztuan bazen, halere, bizi berriaren zantzurik eta landareetan ikusi zuen denbora berrien lekukoa. Maiatz arbola, adibidez, zeru-lurrak lotzen dituen izakia zen, zainak lurrean sarturik eta gailurrak zerua ukitzen baitzuen. Plazako zuhaitzak harentzat biziaren indar ezkutuen jainko-adur sakratua zuen.

Mendia zen, bestalde, sineste zaharretako katedral eta santutegia. Ez halere edozein mendi. Zerutik gertu zegoen mendi aukeratuak Amaren sabelera doan bide antzera, kobazulo edo lezeren bat behar zuen goiko aita indarrak lurraren ama sabela ernaltzeko. Horrela sortu zen mundu guztiko mendi santuen mitoa. Bizia ematen duen *sugaar* edo *suge harra, Herensugea* alegia, udaberrian ikusten da garra dariola kanpora ateratzen, eta udazkenean itzultzen da berriro lurpean dagoen neguko gelara. Herensugea, berez, biziaren aita da baina, gero, bere umeen irensle bihurtzen da, ekaitz, tximista, lurrikara, uholde, lehorte eta ezbehar guztien figuran eta gizonak hil egiten du. Bide berean egurasten da Mari, lurraren emankortasun irudia.

Mendi horien inguruan egiten ziren erlijio paganoen ospakizun nagusiak eta Eliza indartzen joan zen eran, mendietako kultoa kristautzen ahalegindu zen. Aralarko elizaren oinarrian erromaniko eta arabiar kutsuko aztarnak baino lehenagokoak aurkitu dira. Horrek esan nahi du, Nafarroako gaur ezagutzen dugun elizarik zaharrena izan daitekeela. Zergatik egin behar zuten mendian, jenderik bizi ez den toki zailean, esanahi berezirik izan ez balu?

Europan zehar emankortasunaren ildoko mendi santu horiek, done Mikelen izenean bataiatu zituen Elizak, hala nola Farfa Frantzian, Gargano Italian, edota Aralarkoa Nafarroan. Horregatik sartu zituen liturgian Mikel goiaingeruaren bi festa: udaberrikoa maiatzaren 8an eta udazkenekoa irailaren 29an, aurrekoen festaburu zaharretan.

Aralarko Mikel donearen irudia bitxia da, eta bakarra munduan, buru gainean gurutzea baitarama. Elizak bere liturgian erabilitako burubidearen azalpen sinbolikoa da. Mikel donea aukeratu zuen mendietako santutegien zaindari nagusi, hain zuzen, Jainkoaren aldeko gudari bezala ikusten zutelako, 'Nor Jainkoa haina?' esan nahi du bere izenak. Horregatik sartu zen elizaren egutegian Mikelen festaren ondoan Gurutzearen eguna, bai maiatzaren 3an eta berdin irailaren 14an. Ez da Mikel azken helburua, gurutze santua baizik eta, hara non, irudi biak elkarturik agertzen dituen Aralarko Aingeru bitxiak.

Horrela uler daiteke zergatik gure Mikelek lurrak bedeinkatzen dituen herriz herri, liburu santuetan inoiz agertzen ez den eginkizunean. Kristautu aurretik, erromatarren *'Ara Coeli'* edo Zeruko Aldarea egon zen mendi tontorrean, eta hortik datorkio *Arakil* Sakanako ibarrari bere izena. Badira

beste *Ara Coeli* batzuk ere bazterretan; izen propioa ez baino euren mendiko aldareen izen arrunta baitzen.

Zaila da gaur egun ikertza lanean udaberriaren sustraietara iristea, urteko ospakizun nagusi haiek erabat sakabanaturik eta desitxuraturik gelditu baitira. Gaurko inauteriek ez dute ikustekorik ospakizun haiekin; baina udaberriko egutegi hartan dute iturburua. Eguzkiaren egutegiak bereganatu zituen pertsonaia asko, hala nola Olentzero, joaldunak –txarkeriak baztertzeko soinua baitzen–, gabon sua edo supila, eta beste asko.

Udaberrian gelditu zirenak Elizak baztertu zituen garizumarekin Kristoren piztuera ongi prestatzeko, eta orduko zenbat aztarna ez dago inauterietan? Aurreratu ez zirenak, Pazko egunera atzeratu izan dira eta erretzen den Judasen panpinak ez du urte zaharraren erretzea inola ere gogoratzen gaur egun.

Behereko ermita askoren jatorria desagertutako herrisken historian datza.

RESUMEN

Las fiestas equinocciales en el primitivo calendario lunar que celebraban el culto a la fertilidad han dejado su huella en las tradiciones populares de Navarra. La presencia de los símbolos vegetales, como el mayo que se erige en algunos pueblos de la Montaña, representaba en su día a la fuerza creadora que renueva la naturaleza. La Iglesia dedicó estas fechas a la Invención y a la Exaltación de la Santa Cruz, como árbol de la vida, con la conmemoración pareja de San Miguel, defensor de la causa de Dios, en fechas próximas de mayo y septiembre. La singular efigie de San Miguel de Aralar, que resalta la cruz sobre la figura del arcángel, es el símbolo de la intención teológica que inspiró en este punto el calendario litúrgico.

ABSTRACT

The equinoctial festivities from the primitive lunar calendar celebrating the cult of fertility have left their mark on popular traditions in Navarre The presence of vegetable symbols, such as the Maypole erected in some mountain villages, in their day represented the force of creation that renews nature. The Church dedicated these dates to the Invention and the Worship of the Holy Cross, as the tree of life, with the parallel commemoration of Saint Michael, defender of the cause of God, on neighbouring dates in the months of May and September. The unique effigy of "San Miguel de Aralar", which features the cross over the figure of the archangel, is the symbol of the theological intention that the liturgical calendar inspired in this area.